



TEATRO
ARRIAGA
ANTZOKIA

Berlin People taldea izango dugu Arriaga Antzokian, Tobias Meinhart saxofoi-jotzailea buru duela, jazz estatubatuarraren tradizioa eta europar ikuspegia uztartuz

- Saxofoi-jotzaile alemaniarra Tom Berkmann kontrabaxistak, Ludwig Hornung pianistak eta Mathias Ruppig bateria-jotzaileak osatzen duten talde birtuoso eta irudimentsuaren buru da.
- Kontzertua Bilbaína Jazz Clubek eta Arriaga Antzokiak sustatutako «BJC Arriagan» zikloaren parte da, eta datorren asteartean egingo da, maiatzaren 17an, 19:30ean.

Bilbo, 2022ko maiatzaren 12a.- Bilbaína Jazz Clubek eta Arriaga Antzokiak bultzatutako «BJC Arriagan» zikloak beste musika-hitzordu bat eskainiko du datorren astean, maiatzaren 17an, asteartean, 19:30etik aurrera. Kontzertuan **Berlin People** taldea izango da protagonista, **Tobias Meinhart** saxofoi-jotzaile alemaniarra buru dela. Meinhart Bavariako herri txiki batean jaio zen eta New Yorken bizi da duela hamabost urte.

Tobias Meinhart hiri horretako jazz-agertokiko artista europarrik bikainenetakoa da. Bederatzi disko ditu taldeburu gisa eta prestigio handiko jazz-klub eta -aretoetan jotzen du aldizka: The Blue Note, The Jazz Gallery, Jazz At Lincoln Center, Birdland, 55 Bar eta Dizzy Coca Cola-n, batzuk aipatzearen. Kurt Rosenwinkel, Ingrid Jensen edo Aaron Goldberg musikariekin grabatu eta egin ditu birak, besteak beste, eta nazioarteko musikari ospetsu bihurtu da, eta ECHO bezalako izen handiko sarietarako hautagai ere izan da 2016an.

Saxofoi-jotzaile bavariar gaztea Berlin People proiektua aurkeztera iritsiko da Arriaga Antzokira, hain zuzen ere, bere jaioterri Alemaniako kultura musikalak New Yorkekin uztartzen dituen proiektua. Berlin People 2018an sortu zen eta Berlinen egoitza duen jazz boskote bat da. Taldearen soinu nagusia inprobisazio esperimentalean oinarritzen da eta, aldi berean, jazz estatubatuarraren tradizioa eta ikuspegi europarra uztartzen ditu. Taldekide guztiek beren sustraiak eta eraginak ekartzen dituzte hainbat sonoritate esploratzeko. Berlin People taldearen sail erritmikoan, **Tom Berkmann** baxu- eta kontrabaxu-jotzailea, **Ludwig Hornung** piano-jotzailea eta **Mathias Ruppig** bateria-jotzailea ditugu. Guztiei ere begirune handia diete Berlingo agertokian musikari eta konpositore gisa. Energia, kimika musikala eta erraztasun teknikoa dira Meinhart buru duen talde honen ezaugarri nagusiak. Taldearen bosgarren elementua Kurt Rosenwinkel amerikar jazz gitarra-jotzaile ospetsua da, Berlinen bizi dena, nahiz eta, bere kasuan, bere kontzertu propioen agendak taldearen konpromiso guztietan parte hartzea eragozten dion.

Meinhart eta Bizkaia

Hainbat sariren merezidun, Tobias Meinhartek arrastoa utzi zuen Bizkaian, oso gazte zela, gainera. Iksle zela sortu zuen Fourscore taldea. Talde horrekin bira egin zuen Alemanian, kritikaren eta ikusleen arreta erakarrit. Eta handik gutxira bere banda sortzea erabaki zuen, eta 2009ko Startbahn Jazz Lehiaketako lehen saria eta 2009ko Getxoko Jazzaldian Talde Onenaren Ikusleen Saria irabazi zituzten. Izan ere, Getxoko Jazzaldiarekin izan zuen harremana emankorra gertatu zitzaion, hiru urte geroago, 2012ko edizioan, Tobias Meinhart Quintet-arekin parte hartu baitzuen. Taldeen Lehen Saria eta, hori gutxi balitz, Bakarlaririk Onenaren Saria ere lortu zuen Tobiasek berak. Orain, hamar urte geroago, Meinhart nazioarteko agertokiko saxofoi-jotzaile garrantzitsuenetako bat da.

ARRIAGA ANTZOKIKO SARRERAK

- 21 euro (beherapenekin)
- Salgai www.teatroarriaga.eus helbidean edo antzokiko txarteldegietan, aurretiazko salmenta ordutegian.

Informazio gehiago:
Komunikazioa - ARRIAGA ANTZOKIA
Jon Rozadilla Urrutia – 652 738 307
comunicacion@teatroarriaga.eus
www.teatroarriaga.eus